AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek BOST atal ditu. Guztiei erantzun behar diezu.

Lehen atalak ez dauka aukerako galderarik; galdera guztiei erantzun behar diezu. Beste ataletan, bi aukeren artean hautatu ahal izango duzu.

Atal bakoitzak adierazia du balioa. Erantzunaren koherentzia, zuzentasun gramatikala eta ortografikoa baloratuko dira, baita aurkezpena ere.

Jarraibideetan adierazi baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu kodea azterketa-orri guztietan idaztea

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

Este examen tiene CINCO apartados. Debes contestar a cada uno de ellos.

El primer apartado no tiene preguntas opcionales, debes responder a todas las preguntas. En los demás apartados, podrás elegir entre dos opciones.

Cada apartado tiene establecido su valor. Se valorará la coherencia, corrección gramatical y ortográfica de la respuesta, así como la presentación.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas del examen.


1. ATALA. ESPERIMENTAZIOA GEOLOGIAN ETA INGURUMEN-ZIENTZIETAN. (2 puntu)

a. Esan zehar-ebaki geologikoan egitura geologikoren bat ikusten den, eta arrazoitu zure erantzuna. **(0,25 puntu)**

b. Deskribatu 1, 9 eta 10 materialak, eta azaldu laburki 1 eta 10 materialek izan dezaketen ingurune sedimentarioa eta nola sortu den 9 materiala. **(0,25 puntu)**

c. Azaldu zehar-ebaki geologiko honen genesia. **(1 puntu)**

d. Adierazi zer era geologiko dagokion material bakoitzari, eta esan transgresiorik edo erregresiorik gertatu den. **(0,5 puntu)**



Legenda: 1. Goi Kretazeoko kareharri bioklastiko grisak (Subillako Kareharriak); 2. Goi Kretazeoko tupa karetsu, kareharri eta tupen txandakapena; 3. Goi Kretazeoko tupa eta tupa karetsuen txandakapena; 4. Miozenoko konglomeratu karetsuak; 5. Miozenoko tupak, limolitak eta argilitak; 6. Kuaternarioko metaketa kolubialak; 7. Triasikoko buztin nabar koloreaniztunak; 8. Jurasikoko karniolak, kareharriak eta dolomiak; 9. Triasikoko ofitak; 10. Triasikoko igeltsuak; 11. Miozenoko limolitak eta pikor fineko hareharriak. *(Energiaren Euskal Erakundeak argitaratutako 1:25000 serieko Ribera Alta 137-II orrialde geologikotik moldatua)*

2. ATALA. PLAKEN TEKTONIKA ETA BARNE-GEODINAMIKA. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Irudiak San Andres faila (Kalifornia) erakusten du. Azaldu faila horretan inplikatutako plaken mugimendua. Esango zenuke bolkanismoa handia dela? Arrazoitu erantzuna. **(1 puntu)**




Iturria: *Wikipedia*

b. Azaldu zer den gradiente geotermikoa, eta adierazi lurrazalean duen batez besteko balioa. Zein eremutan da handiagoa? Eta txikiagoa? Zergatik? **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Azaldu baieztapen hau zuzena den: Lurraren barnealdeko beroa da plaka litosferikoen mugimendua eragiten duen motor bakarra. **(1 puntu)**



b. Zer antzekotasun dago Japoniako uharteen jatorriaren eta Andeen sorreraren artean? Zer desberdintasun dago? **(1 puntu)**

3. ATALA. KANPO-PROZESU GEOLOGIKOAK. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Zein da irudiko erliebean ikusten den formaren izena? Azaldu forma horren sortze-prozesua. **(1 puntu)**



Iturria: *https://eu.wikiloc.com*

b. Azaldu erreka edo ibai batean sedimentua/solutua zein modutan garraia daitekeen. **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Zein da irudiko erliebean ikusten den formaren izena? Azaldu forma horren sortze-prozesua. **(1 puntu)**



Iturria: *https://www.turismodeobservacion.com*

b. Azaldu erliebe glaziar batean sortzen diren formak zein diren. **(1 puntu)**

4. ATALA. MINERALAK, ARROKEN OSAGAIAK / ARROKA IGNEOAK, SEDIMENTARIOAK ETA METAMORFIKOAK. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Garai batean ustiatu zen meatze baten sarreran, irudian ikus daitekeen minerala aurkitu da. Laborategira bidali ondoren, haren formula kimikoa NaCl dela jakin dugu. **(1 puntu)**



Iturria: *Wikipedia*

1. Zein da mineralaren izena?
2. Zer ezaugarri ditu?
3. Zer erabilera du?

b. Mineralak aztertzeko eta identifikatzeko euren propietateak aztertu ohi dira. Azaldu beheko argazkian ageri den minerala identifikatzeko aztertuko zenituzkeen 4 propietate fisiko. **(1 puntu)**



Iturria: *https://www.diamantesa.es*

B AUKERA:

a. Honako bi irudi hauetan Euskal Herrian oso ohikoa den arroka bat ageri da: kareharria. Azaldu arroka hori eratzeko prozesua. **(1 puntu)**




Iturria: *https://www.ataunturismoa.eus*



Iturria: *https://www.euskadi.eus*

b. Azaldu lehenengo argazkiko arrokaren eta bigarren argazkian agertzen denaren arteko lotura zein den. **(1 puntu)**



Iturria: *http://edafologia.ugr.es*



Iturria: *http://edafologia.ugr.es*

5. ATALA. LURRAREN GERUZA JARIAKORRAK / BALIABIDEAK ETA HORIEN KUDEAKETA JASANGARRIA. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Aztertu honako irudi hau, eta azaldu zer informazio eskuratu daitekeen bertatik. **(1 puntu)**




Iturria: *https://edu.rsc.org*

b. Azaldu zein diren gaur egungo ingurumen-arazo globalak. **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Honako irudi honetan gainazaleko eguraldi-mapa bat ikus daiteke. **(1 puntu)**



Iturria: *https://www.euskalmet.euskadi.eus*

1. Azaldu horrelako mapetan eguraldia adierazteko erabiltzen diren eta mapa honetan agertzen diren elementuak.
2. Mapan oinarrituta egin ezazu hurrengo orduetarako Euskal Herriko eguraldiaren gutxi gorabeherako iragarpena. Prezipitaziorik egon daiteke? Haizeak nondik joko du nagusiki?

b. Azaldu lurzoruaren eraketan eragiten duten faktoreak zein diren. **(1 puntu)**